



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfinoa.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

Udazken Festa urriko azken asteburuan!

AURKIBIDEA

Frontoiak 100 urte /2

Igeldoko Herri Kontseilua /3

Lezkarri Abesbatza /3

Mendizorrotz GE /3

Eskola /3

Igeldoko Gaztiak /4

Kixmi aisialdi taldea /5

KONTU KONTARI:

ITSAS AURRE ELKARTEA

JUAN LUIS CRUZ /6-8

Kaixo herrikide!!!

Udako oporraldiaren ostean, bueltan gaituzu berriz. Ale honetan, besteak beste, datozen egunetan izango diren ekintzen berri izango duzu. Esaterako, frontoiak 100 urte betetzen ditue-

la eta, pilota txapelketa antolatu du Lizardik, Herri Kontseiluak Euskararen Eguna antolatuko du, Itsas Aurrek desanexio eskaeraren urteurren festa... Juan Luis Cruz Itsas Aurreko

kideari egindako elkarrizketa ere irakurri dezakezu. Eta horrez gain, urriaren 26tik 28ra Udazken Festa izango da (egitaraua Orri Informatiboarekin banatu da).

Frontoiaren mendeurrena ospatzeko, pelota txapelketa antolatu du Lizardik

Igeldoko frontoia egin zela 100 urte betetzen dira aurten eta hori dela eta, Lizardi Pilota Eskolak urriko 3 aste-buruetan pilota txapelketa antolatu du. Partiduak 2 modutan jokatu dira: binaka eta 4¹/₂an banaka. Txapelketan zehar parte hartuko duten pilotariak herrikoak zein kanpokoak izango dira, “bereztasun pixka bat emateko”.

Udazken Jaiarekin bat,

urriaren 27an barrene herrikoia

Lizardikoen, frontoiak mendeurrena betetzen zuela jakin zutenean, zerbait egin beharra sentitu zuten. Hasieran, herritar gutiekin frontoiaren inguruan ospakizun zabal bat antolatzea zuten asmoa, baina denbora aurrera zihoala ikusita, pilotan oinarritutako ospakizuna antolatu dute.

Udazken Jaiaren egitarauarekin bat egin dute finalak ospatzeko, esan bezala, herrira gehiago zabalatzeko. Pilota eskolako arduradunak izan dira antolaketan ibili direnak batez ere, nahiz eta zenbait bileretan pilotariak ere parte hartu. Lizardikoen arabera, “frontoiak herriarentzat urteetan funtzio garrantzitsu asko bete ditu, pilotan jolasteaz aparte beste hainbat ekimenetarako espazioa ere izan baita; aizkora apustuak, soka-tira, herri bazkariak... Horregatik herri guztiaren artean zerbait antolatu nahi genuen”. Nahiz eta ideia hori ez den guztiz gauzatu, herritar guztiak parte hartzaile izan daitezen, urriaren 27an barrene herrikoia antolatu dute.



Ehun urte hauetan pelota partiduez gain, herriko hainbat ekintza ere egin dira frontoian.

Dokumentazio gutxi

Frontoiaren eraikitako data jakin arren, ondorenean izan dituen erreformen inguruan informazio handirik ez dute pilota eskolakoek. Diotenaren arabera, aldaketa gutxi batzuk izan zituen frontisean eta atzeko paretan, azken erreforma egin artean. Hala ere, nabarmendu dute informazio eta dokumentazio falta handia dugula herri honetako historiaren inguruan eta hori penagarria dela. Egindako erreforma gutxi batzuek ere ez zirela fundamentu handikoak izan aipatzen dute. “Zenbait urtetan *interpueblo*tan irabazitako dirua obrak egiteko erabili zen, baina gehienez txapuzak egiteko”. Denera gastatutako diruarekin frontoi txukuna egitea hobea izango zela ere azpimarratu dute, baina administrazioaren aldetik utzikeria edo interes falta nabaria zela diote.

15 pelotari, txikienean taldean

Pilota Eskolak ekin dio aurtengo ikas-

turteari eta aurten 15 pilotarik osatzen dute txikienean taldea (3 alebin, 6 benjamin eta 6 txiki) eta horrek Pilota Eskolako arduradunei beste animo bat ematen die. Entrenamenduak astearte eta ostegunetan izaten dituzte arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Ikasturtea hastearrekin batera, Gabonetako Loteria ere atera dute Pilota Eskolakoek. Herriko zenbait tabernetan edota zenbait herritarren bidez salduko da eta jendea erosteko deia egiten die, urte guztian zehar izaten dituzten gastuei aurre egiteko beharrezkoa baitute.

URRIAK 21, igandea:

11:00, bigarren finalerdiak.
Binaka: Kristobal (Añorga)/
Goikoetxea(Igeldo)
Urruzmendi (Igeldo)/ Manzidor(Antigua)
4 1/2 an Banaka: Apezetxea (Zazpi
Iturri)/I.Etxeberria (Igeldo).

URRIAK 27, larunbata:

11:00, Barrene Herrikoia: hasteko, 6-14 urte bitartekoak eta ondoren, 14 urtetik gorakoak.
17:00, txapelketako finalak.

*Finalen aurretik oroigarri plaka bat jarriko da frontoian, 100. urteurrenaren adierazle.

Herri Kontseilua hainbat ekintza antolatzen ari da Euskararen Eguna ospatzeko

Abenduaren 1ean ospatuko da Euskararen Eguna Igeldon. Besteak beste, kantu gira eta 'Gazta zati bat' filma izango dira.

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da eta horren harira, Igeldoko Herri Kontseiluak ekintza bereziak antolatuko ditu abenduaren 1ean. Herriko talde eta elkarte ezberdinekin elkarlanean antolatuko dira ekintzak. Besteak beste, kantu gira eta Jon Maiaren *Gazta zati bat* filma izango dira.

Bestalde, Herri Kontseiluak

jakinarazi du herriko taldeen arteko koordinazio bilerak martxan jarri direla.

Aurreneko larunbatetan, San Markoseko kamioia

Hilabeteko lehenengo larunbatetan San Markoseko Garbigune kamioia etortzen da Igeldora. Calonge ondoko parkinean egoten da 11:00-13:00.

Buruhauste gutxiago Donostiako Udalari esker!

“*Jakina da Igeldon Eskola Txiki bat duguna, baina agian ez duzue jakingo horrek zein aparteko lan ekartzen dizkien gurasoei. Eskola Txikietan arrunta baita hiriguneetako ikastetxe publikoetan baino zerbitzu gutxiago egotea, eta, askotan, gurasook hartzen dugu gure gain horiek ordezkatzeko lana.*

Orain arte Mendizorrotz guraso elkarteak ordaintzen zuen goizeko zaintzako eta igerilekura joateko autobusaren zatirik handiena, eta horrek dirurik gabe uzten zuen, guraso elkarte baten ohiko lanak beharko luketenak egiteko. Bada, Donostiako udalak 3.961 euro emango dizkigu aurten, bi lan horiek gauzatzeko laguntzeko, ulertu baitu gainerako ikastetxeekiko "aukera berdintasuna" bermatu behar duela.

Goizeko zaintza 08:00etatik hasten da eta irauten du umeak es-

kolara sartzen diren arte, hau da, 09:30ak arte; funtsezkoa dute lan egiten duten gurasoen seme-alabek, zerbitzu hori gabe haurrak non utzi ez dakitela geratzen baitira. Igerilekuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu baliabideak umeek igeri egiten ikas dezaten, baina ez ordea igerilekuraino joateko garraiorik. Hori ere guraso elkarteak ordaintzen zuen zatirik handienean.

Beraz, gure eskerrik beroenak, Donostiako Udalari, hari esker guraso elkarteak beste lan batzuk egin ahal izango ditu eta. Aurten, gainera, arreta berezia jarriko du euskara sustatzean, gure seme-alaben ohiko hizkuntza izan dadin.

Bide batez, lerrook erabiliko ditugu aurten sartu diren 7 ikasleak agurtzeko: ongi etorri Igeldoko Herri Ikastetxera!

Mendizorrotz Guraso Elkarte

Soprano beharrean, Lezkarri abesbatzan

Lezkarri abesbatzak ere ekin dio ikasturte berriari. Asteazken iluntzetan elkartzen dira arratsaldeko 20:00etan eta ordu eta erdiko saioa egiten dute. Soprano ahotsaren beharra dutela adierazi dute, eta Orri Informatiboaren bidez deialdia egin nahi dute jendea animatzen dadin. Hala ere, beste edozein ahotsetako jendea ere ongi etorria izango dela azpimarratu dute.

Bestalde, ekainaren 23an Belauntzan egindako saioaren ostean, Txantxangorri bertako herri aldizkarian Lezkarri abesbatzari buruzko kronika ere argitaratu zuten. Pixkanaka badoa bere bidea egiten herriko abesbatza. Animo eta holaxe segi!

Eskolako haurrak, unibertsoa lantzen

Hasi da 2012-2013ko ikasturtea Igeldoko herri eskolan. Aurten, 2 urteko 7 haur berri hasi dira eta 5 haur joan dira Antiguako Luberri ikastetxera, DBHko 1.maila egitera.

Lehendabiziko hiruhilekoan Unibertsoa dute lanketa gaia eskolako haur guztiek. Hiruhileko bakoitzean gai ezberdin bat lantzen dute eta batzuetan gai hori Gipuzkoako beste zenbait eskola txikiekin batera jorratzen dute. Gainera blog bat ere badute sarean eskola txiki ezberdinen artean konpartitzen dutena eta lantzen ari diren gaiari buruzko informazioa bertan zintzilikatzen dute. Esan bezala, orain Unibertsoa ari dira lantzen Berrobi, Aduna, Olaberri eta Zeraingo eskolekin batera eta hilaren 15ean Iruñako planetariora irteera dute.

Gazteak, Ernion egun pasa eta kosta garbitzen ibili dira

Urte honi begira, Igeldoko Gaztiak taldeak hiru gai landuko ditu batez ere: parekidetasuna, aisialdia eta etxebizitza. Bestalde, lokaleko proiektuaren zirriborro bat aurkeztu diote Herri Kontseiluari.

Udako oporren ostean, ekintza ezberdinak antolatzeari ekin dio Igeldoko Gaztiak taldeak. Urrutira joan gabe, irailaren 23an mendi irteera antolatu zuen Erniora. 12 lagun elkartu ziren eta oso gustora, giro ederrean ibili zirela azaldu dute. Gainera, igeldoarren aldarrikapena ere iritsi zen tontorreraino, udalerriko bandera jarri baitzuten gurutzean.

Urriaren 6an, berriz, kosta garbitzeko deialdia egin zuten eta 13 lagun elkartu ziren. Lanean galdutako indarrak berreskuratzeko, afaria egin zuten elkartean. Afaltzera 18 gazte animatu ziren.

Ohiko ekintzak eta berriak

Gazteek urteko plangintza ere egin dute eta azaldu dutenez, aurreko urteetan ondo funtzionatu duten egunak mantenduko dituzte: gazte eguna, inauteriak, gabon festa, urteurren festa... Eta horrez gain,



Udalerriko bandera jarri zuten Ernioko gurutzean.

orain arte bezala, gauza ezberdinak antolatzen ere jarraituko dute: kontzertuak, pelikulak, afariak, irteerak...

Bestalde, jakinarazi dute aurten hiru gai landuko dituztela batez ere: parekidetasuna, aisialdia eta etxebizitza. Azken gai horri lotuta, IHKri idatzi bat bidali diote gaiaren inguruko kezka erakutsiz.

Lokalari dagokionean, proiektuaren

zirriborro bat aurkeztu diote IHKri. Bilera egin zuten eta proiektuari, obrari... buruz aritu ziren.

ZukGua prozesua martxan

Igeldon ere martxan da ZukGua prozesua. Sistema kapitalistari buruz, mundua eta Euskal Herria, gazteriaren egoera, krisi ekonomikoa, ekologia, etabarren inguruan hausnarketa eta eztabaida prozesua abiatu dute Euskal Herriko gazteek. Errealitatearen azterketa eginda, egoeraren erroko aldaketa beharrezkoa dela diote eta horretarako antolaketa beharra. Behar horri aurre egiteko sortu dute ZukGua, Euskal Herri guztiko gazteen artean erabakiko baitute aurrera begirako norabidea. Igeldon ere izango dira eztabaidak eta ahalik eta gazte gehienei parte hartzeko deia egiten die Igeldoko Gaztiak taldeak: "Animatu gazte! geroa gure eskuetan dago, atera zukgua bizitzari!!!".





Kixmirekin ekintza ugariz gozatzeko aukera izan dute herriko umeek

Hilabete hauetan honako ekintzak egin dituzte: Getarian asteburu pasa, Udaberri Festan tailerrak, haurren eguna eta udalekuak. Orain, Udazken Festari begira daude, urriaren 26an tailerrak izango baitira.

Kixmi aisialdi taldeak ekintza ugari antolatu ditu hilabete hauetan zehar, herriko umeen gozamenerako. Apirilean Getarian izan ziren asteburu pasa. Udaberri Festan tailerrak antolatu zituzten, San Pedrotan haurren eguna, eta udan zehar, udalekuak. Orain, Udazken Festari begira daude, urriaren 26an umeentzako tailerrak antolatu baitituzte.

Etxe oso bat, lehenengo aldiz

Apirileko irteeran, lehenengo aldiz, Kixmik etxe oso bat hartu zuen haurrekin joateko, Getarian. Esperientzia berria izan zen guztientzat, baina berrikuntza handiena, menua antolatzeaz eta sukaldetan aritzeaz Kixmi arduratzea izan zen.

Ekintzen aldetik ere izan ziren berrikuntzak; besteak beste, itsasontzian ibili ziren Zumaiako itsasertza ezagutuz, eta oraindik aurkezteko dagoen sorpresa bat ere prestatu zuten... beraz, adi hemendik aurrera!

Udaberri Festan, birziklapena lantzen

Kixmiko begiraleen denbora eskasiagatik, gurasoak arduratu ziren Udaberri Festako ekintzak antolatzeaz (eguna



aurrera elkarlanean atera bazuten ere). Egun polita antolatu zuten, nahiz eta eguraldiak gauza batzuk aldatzera eraman zuten.

Birziklapenari lotutako marrazki erraldoiak margotuz hasi zuten goiza, ondoren indar berritzeko bazkari bikaina egin zuten eta azkenik tailer ezberdinetan parte hartuz bukatu zuten eguna.

Ez zen eguraldiaren aitzakiarik egon eta haur ugari bertaratu zen.

30 haur inguru, festetako haurren egunean

Jinkana erraldoi batekin hasi zen festetako haurren eguna, eta haurrek euren artean saria banatu ostean, elkarrekin bazkaldu zuten herriko elkarteetan. Bazkalostean

puxikaz betetako jolasarekin gozatu zuten frontoian. Arratsaldean, urtero bezala, merienda goxoa eman zitzaion hurbildu ziren haurrei, eta ondoren, eguraldia lagun, ur-jolas inprobisatuz blai amaitu zuten eguna. Denera, 30 haur inguru elkartu ziren.

Adin ezberdinetako umeentzat, ekintza ezberdinak

Umeen adin ezberdintasunak udalekuak antolatzerako garaian zailtasunak eragin ditzake, baina zailtasunei aurre egitea lortu dute Kixmin, ekintza ezberdinak eskainiz. Haur, begirale zein gurasoak gustora geratu dira emaitzarekin, hala erakutsi dute azken horiei hilabete bukaeran banatutako balorazio inkestek.

"Azterketa ekonomiko guztiek diote Igeldo herri bideragarria izango dela eta zerbitzuak mantentzeaz gain, gehitu egingo direla"

Itsas Aurre elkarteak hainbat bilera egin ditu Diputazioa eta Donostiako Udalarekin. Jarrera ona azaldu dute eta gaia aztertzen ari dira. Egun, desanexio prozesuaren inguruko epaiketa etenda dago. Itsas Aurrek lanean jarraitzen du igeldotarren gehiengoak azaldutako nahia bete dadin. Horren eta gehiagoren berri eman dio Juan Luis Cruzek Orri Informatiboari.

Itsas Aurrek hainbat bilera egin ditu Diputazioa eta Donostiako Udalarekin. Zertan da gaia orain? Bai, ala da, Igeldon burutu ziren mobilizazioen ostean, eta eskatzen zen bezala, lehenengo hartu-emanan izan genuen Diputazioarekin. Hainbat arrazoi tarteko, desanexio eskaeraren prozesua berriro irekitzea eskatu genuen. Gogoratu behar da eskaerak 2010ean ezezkoa jaso zuela eta Itsas Aurrek dekretu honen aurka helegitea jarri zuela epaiketara eramanez.

Hurrengo bileran zera adostu genuen, epaiketatik kanpo utzi egin behar genuela eskaera; hau da, epaiketa behin behineko gera zedin eskatu genuen. Foru Aldundiko agintari berriei gure eskaera azaldu eta azter zezaten eskatu nahi genien eta horretarako denbora behar genuen.

Epaiketa etetea lortu ondoren, prozesua ze fasetan zegoen ikusita, gerora egindako bilerak balio izan zuen informazioa eta dokumentazioa errazteko, gure ikuspuntuak eta balorazioak emanez.

Eta bilera horietan ze inpresio jaso duzu Diputazioaren eta Udalaren aldetik?

Harrera ona izan dugu. Eskaeraren nondik norakoak berehala eta ondo bereganatu dituztela esango genuke, eskaera legearen barruan eskatua eta ondo oinarritua dagoela ikusi baitute. Honi erantsi nahiko nioke, eraba-



Juan Luis Cruz.

kia hartzeko unean (2010ean) guri ez zigutela inongo audientziarik eman eta arrazoi politikoak erabili zituztela soilik, arrazoi tekniko eta juridikoak baztertzuz. Eta horretaz ere konturatu dira.

Orain epaia etenda, zein da hurrengo pausoa?

Gure aldetik, momentu honetan, gure tekniko eta abokatuekin txosten ekonomikoak, juridikoak, lurraldetasun eta ondasun agiriak... eguneratzen ari gara, guztien aurrean gure eskaera bideragarria dela frogatzen jarraitzeko. Garrantzitsua da datuak eguneratzea eta horretaz aparte, herritarrekin biltzeko asmoa ere badugu. Herritarrekin gaiaren inguruan hitz egin eta gaia bizirik



Ekitaldi berezia antolatu zuen Itsas Aurrek San Juan bezperan, San Juan suaren inguruan.

mantentzeko beharrezkoa da harremana lantzea. Igeldotarren gehiengoak azaldutako nahiaia eta hautua aurrera eramateko lanean arituko gara.

Beste Erreferendum bat egitea aurreikusten al da?

Erreferendumari buruz esan beharra dago, aplikatu behar zaigun legearen arabera, eskaera egin genuen unean jaso zen herritarren babesak balio duela, hau da, igeldotarren %63arena. Dena den, ez dugu baztertzen posibilitate hori, beharrezkoa edo egokia ikusiko balitz.

“Txostenak eta datuak eguneratzen ari gara orain. Eta herritarrekin biltzeko asmoa ere badugu.”

Bitarte honetan, zer egin dezakegu herritarrok?

Badago batzorde bat gai hau lantzen ari dena, guztiz irekia herritarrentzat: Itsas Aurre. Batzordeko talde bat prozesua eramaten ari da eta beste bat Igeldo udalerria bihurtzeko, herrian dagoen sentimentua indartu eta garatzeko lanean ari da. Horrez gain, ekonomia arloa kudeatzen du. Hori horrela, dei egiten dizuegu egingo diren ekintzetan parte hartzeko. Bestalde, gastu ekonomiko oso handia eragiten ari zaigu prozesua eta arlo honetan ere ahalegin txiki bat eskatzen ari gara.

Igeldo herri izatean, nola funtzionatuko luke? Ekonomia aldetik, zerbitzuen aldetik... (garraio publikoa, basurak, osasuna...)

Beste edozein udalerririk bezala funtzionatuko luke. Hamaika adibide daude Gipuzkoan, eta herritarrekin batera, kudeatuko duen taldearen lana izan beharko luke. Zerbitzuen aldetik guk izango genuke norekin eta zer nolako baldintzetan mankomunitateekin erkitetzeko askatasuna. Argi dago egin diren ikerketa



Asmo zaharrak sutara bota ziren eta asmo berriak desiratu lizarrek eskuan: Igeldo 89. udalerrria.

ekonomiko guztiek diotena; alegia, Igeldo herri bideragarria izango dela eta orain ditugun zerbitzuak mantendu eta gehitu egingo direla. Hemen ez da ahaztu behar defizita handia daukagula zerbitzuetan: bideak, osasuna, kirola, kultura, e.a.

SIADECOREn azterketek argi uzten dute Igeldo herria bideragarria dela. Zertan irabaziko luke herri izanda? Eta zerbaitetan galduko luke?

Bai, komentatu dugun bezala egin diren txostenek oso argi uzten dute bideragarritasuna. Eta izango genuke aurrekontuen zati bat inbertsioetarako. Baina ez hori bakarrik, prozesu guztian ez dago inongo txostenik kontrakoa esaten duena, ez Donostiako udaletxetik ez Diputazioko Ogasun Departamentutik.

Zer irabaziko genuke? Nahiz eta oso sinplea iruditu,

gertutasuna. Mila kasu egon dira eta daude non argi ikusten den zein urruti geratzen zaigun Donostiako Udala. Herriaren bizitzaren egunero-kotasunean askoz ere eraginkorragoak izango ginatekeela ez dago dudarik.

Bestalde, udalerrri propioa izaten bagara, gu geronek eta hemen bertan hartuko ditugu gai guzti guztien erabakiak, nahiz hobetoxeago edo okerxeago izan.

Esate baterako, etxe babestuen edo alkilerraren kontua Igeldotik igeldotarrentzat kudeatuko genuke. Hirigintza gaiari dagokionean, oso ezberdina da mila biztanleko herri batentzako hirigintza kudeatzea edo 200 milako hiri batena. Ez dira sekula bat etorriko baten edo bestearen beharrak eta helburuak. Hau da, guk geronek kudeatuko genuke zer nolako Igeldo nahi dugun. Beste adibide bat izango litzateke aukerak izango genituzkeela beste erakundeetatik finantziazioak

“ Galtzeko ez dugu ezer ere ez. Guztia dugu irabazteko eta aurrera egin beharra dago! ”

bilatzeko, lehen komentatu dugun zerbitzu falta horiek betetzeko eta azpiegiturak lortzeko (kultur etxea, frontoia, igerilekua, e.a.), beste Gipuzkoako herrietan lortu duten bezalaxe.

Horrez gain, komentatu nahi nuen Igeldo udalerrri bihurtzen bada, hiriarteko herri bat bihurtuko dela eta honek suposatuko luke, adibidez, errepide nagusia Diputazioaren esku geratzea, garraio publikoa Lurraldebusek hartzea, e.a.

Galtzeko berriz, ez dugu ezer ere ez, hori da lanean jarraitzeko indarra ematen digun ideia argi bakarra. Guztia dugu irabazteko eta aurrera egin beharra dago!

Azkenik galdera bat luzatu nahi dugu: zer egin du Donostiako Udalak Igeldon?

Zerbait gehiago, esateko?

Bai, ORAIN BAI, IGELDO GIPUZKOAKO 89. UDALERRIA.

Festa izango da azaroan, desanexio eskaeraren urteurrena ospatzeko

Azaroaren 24 eta 25ean antolatu du festa Itsas Aurre elkarteak. Besteak beste, mugak ezagutzeko mendi irteera eta bazkaria izango dira.

Igeldok desanexio eskaera egin zuela 18 urte beteko dira azaroan eta urteurrena ospatzeko festa antolatu du Itsas Aurre elkarteak. Azaroaren 24 eta 25ean, larunbata eta igandean izango da festa. Besteak beste, mendi irteera egingo da Orio-Usurbil aldeko mugak eta mugarriak ezagutzeko eta bazkaria ere bai. Ekintza gehiago ere antolatuko dituzte, baina ez dute zehaztu oraindik. Aurrerago emango dute guztiaren berri.



15. urteurrena ospatzeko hainbat ekimen egin ziren. Mugarria jarri zen Donostiako mugan.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián